

Euskara bitan zatitu nahi zuten haiek

Euskalkien arteko desberdintasunak ohiko hizpide izaten ditugu herri honetan. Are gehiago, euskara hizkuntza bakarra dela ezbaian jarri izan da historian zehar, hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik taxuzko argudiorik eman gabe bada ere. Hori bai, munduan zehar ikus daitekeenez, hizkuntzalaritzak zeresan gutxi izaten du, sarri, hizkerak sailkatzeko garaian.

UNAI BREA

EUSKALDUNOK bost mende darabagu, gutxienez, gure hizkerak zer desberdinak diren esaten. Gai horri buruzko zenbait idatzi jasota ditu Koldo Zuazok aspaldiko lan batean: *Euskararen Batasuna*. XVI. mendetik, dakigula behintzat, askok adierazi zuten beste euskaldun batzuekin ezin komunikatzeak sorrarazten zien frustrazioa, eta idatziz utzi ziguten horren testigantza. “Ezabatuz eta galduz joan da, hein batez bederen, komunitate linguistiko bat eta bera osatzen delako kontzientzia”, idatzi zuen Zuazok 1987an.

UNESCOk hizkuntzen sailkapena argitaratu berri duen honetan, Iñaki Camino hizkuntzalariak esan digu duela bi urte-edo, sailkapen horretan euskara bat ez, baizik eta hiru ageri zirela: lapurtera, zuberera eta gainerakoak. “Euskal hizkuntzalariok kexu bat agertu genuen eta jaramon egin ziguten”. Izan ere, gaur gaurkoz erabateko adostasuna dago euskara aztertzen duten ikerlarien artean: euskara hizkuntza bakarra da.

Orain gutxi, baina, hainbat hausnarketa eragin digu Mikel Hernandez Abaitua idazlearen artikulu batek. Bertan, bizkaiera eta zuberera hiztunez dihardu Hernandezek, eta hauxe dio halako batean: “Bizkaiera eta zuberera dialektoak dira ala hizkuntzak? Bizkaiera ez al da oso azpieuskalki sendoak dituen hizkuntza bat? Bi euskalki hauen ezberdintasun fonetiko, morfologiko, lexikal eta prosodikoak ez al dira aski hizkun-



Zuberoako pastoralak azpitolu eta guzti eman ohi ditu ETBk. Zuberera da, segur aski, gainerako euskaldunen belarrietarako euskalkirik arrotzena, baina fonetika ez beste ezaugarriei begiratuta bizkaiera da, alde handiz, besteengandik gehien bereizten dena. XIX. eta XX. mendean zenbaitek beste hizkuntza bat zela esateraino.

tza-maila onar diezaiegun? Hori da inork entzun nahi ez duen galdera eta beldurra ematen bide diguna”.

Askotan aipatzen den konparazioa erabili du Hernandezek: euskararen dialekto batzuk urrunago daude elkarrengandik zenbait hizkuntza erromantze baino, gaztelania eta galiziera esaterako. XVI. mendetik hona askok emandako adibide bera da, azken batean. Beste asko aipa litezke, baina adierazgarriena ko bat besterik ez dugu hona ekarri-

ko: duela urte batzuk serbokroaziera zena bitan banatu dute Balkanetan izandako gertakari politikoek. Orain serbiera eta kroaziera daude, hizkuntza bi lehen bakarra zegoen lekuan. Munduko hizkuntzalari guztiek dakite biak hizkuntza bera direla, alfabeto desberdinez idazten diren arren. Baina serbiar eta kroaziar hizkuntzalariak ez dute batasunaz hitzik ere entzun nahi. Euskal Herriatik hurbilago, antzeko zerbait gertatzen da valentzierarekin eta katalanarekin.

Nola erabili portzentajeak zehatza ez den zientzian

Ikusi dugunez, hizkuntzalaritzazkoak ez diren faktoreek zeharo eragin handia dute hizkerak sailkatzeko orduan. Baina horrek ez dio zientziari baliorik ebasten. Hartara, Iñaki Caminok dialekto terminoaren definizio hau eman digu: "Hizkuntza baten erak edo aldakiak, elkarrenganako ulergarri direnak eta isoglosa-sorta zenbaitetik mugatzen dituztenak dira dialektoak".

Nabardurak berehala datoz. Esaterako, elkar-ulergarritasuna modu askotara irakur daitekeen aldagaia da. "Bateko eta besteko hitzunen arteko elkar-ulergarritasuna baldin badago, berenak dialektoak direla pentsatzea eta elkar-ulermenik ez badago hizkuntzak direla pentsatzea, ez da guztizko erokeria, baina aintzat hartu

behar da elkar-ulergarritasuna ez dela trantsitiboa, Ak B uler dezake Bk A ulertu gabe", azaldu du Caminok. Bestalde, elkar ulertzea ala ez ulertzea hitzunen jarreraren eta prestakuntzaren arabera izaten da maiz.

Hizkuntzak dira bata bestetik sistematikoki aldenitzen diren hizkerak, eta zenbat eta arau desberdin gehiago, orduan eta "hizkuntzago". Baina, zenbat erregela izan behar da desberdin, bi hizkera hizkuntza bereizitzat hartzeko? Dialektologo batzuek proposatutako formularen arabera, desberdintasun maila %80 eta %90 artekoa bada, bi hizkuntza ditugu. %50 eta %80ren artekoa denean, berriz, dialektoak. Esan gabe doa hizkuntzalari asko ez datozela bat sistema horrekin.

Adibideok argi erakusten dute edozein filologok ondo dakiena: hizkerak sailkatzeko orduan, pisu handiagoa dute faktore politikoez hizkuntzalaritza "hutsezkoek" baino, hala esatea zilegi bada. "Alderdi guztiz labainkorra da politika eta dialektoen nahiz hizkuntzen mugak gurtzatzen direna", dio Iñaki Caminok. Batik bat, nazio-identitatearekin zerikusia duten arazoez izugarritzko eragina eduki dezakete ustez zientzia aseptikoa izan behar lukeenaren jardunean. Hala uler daiteke, konparazio baterako, jende gehienek onartzea galiziera eta portugesa hizkuntza bi direla, eta elkarrengandik dezente urrunago dauden bizkaiera eta gipuzkera, aldiz, bakarra.

Bizkaieraren auzia

Hain zuzen, bizkaierak eragin ditu euskara hizkuntza bat baino gehiagotan bereizteko ahaleginik serioenak. Arrazoi nagusia da haren eta gipuzkeraren arteko etena bat-batekoagoa dela gainerako euskalkien artekoa baino. Zinez, euskararen dialektorik diferenteena da bizkaiera, eta diferentzia horrek bultzatu zuen Willem Jan van Eys ikerlaria euskara

bien hipotesia plazaratzera, XIX. mendean. Bizkaiera beste hizkuntza bat dela garbi esan gabe, hura eta gainerako euskalkiak guztiz bananduta ikusten zituen Van Eysek, eta bide bera urratu zuten ondorengo hamarkadetan hainbatek, tartean Sabino Aranek eta haren zenbait jarraitzailek. Horietako batek, Kolobika Eleizalde, zera proposatu zuen: gaur egungo euskara antzina-ko bi euskaren arteko talkaren emaitza dela, eta bi horietako batek eragin handiagoa izan zuela bizkaieran, eta besteak gainerako euskalkietan.

1942an, Uhlenbeck holandarrek tesi honen alde egin zuen, bere aurrekoek baino askoz ikuspuntu zientifikoagotik. Esan behar baita orain arte aipatutakoek ez zutela eman hizkuntzalaritzaren galbahea pasa zezakeen argudio bat bera ere. Uhlenbeckek zioen antzina hizkuntza bi izan zirela bizkaiera eta beste euskal dialektoak, eta denboraz hurbilduz joan zirela. Hura ere erratuta zegoen baina. Xabier Kintana euskaltzainaren hitzetan, Uhlenbeckek badu zuribiderik: haren garaian, ez genekien euskararen historiaz gaur dakigun beste. XX. mendearen bigarren erdi-

ko ikerketek frogatu zuten, euskalki guztiak, bizkaiera barne, elkarrengandik askoz hurbilago egon ziren ez hain aspaldiko garai batean. Hau da, gaur euskara bat bada, are gehiago orain dela 1.000 urte, orduan hasi baitziren gaurko euskalkiak bata bestetik bereizten. Denbora tarte laburra, hizkuntzalaritzaren eskalan.

Honenbestez, Mikel Hernandez Abaituak egindako galderak ez dauka lekurik euskal hizkuntzalaritzaren eztabaidetan. Eta Euskal Herri-kanpo, gutxi aldarrikatzen du euskara hizkuntza bat baino gehiago denik, intentzio politikoa argiarekin beti ere. Kontua da hizkuntzen sailkapenean joera zatikatzailea dela nagusi —serbokroazieraren antzeko adibide ugari dago—, eta hala ere euskaldunok, gure txikian, hizkuntz batasunari eutsi diogula munduaren aurrean. Rosa Miren Pagola dialektologoaren ustez, Nafarroako Erresumak utzitako ondarea da hori. Garai hartan Euskal Herria unitate modura agertzen zen, eta harrezkerotik argi dago kulturalki herri bakarra garela, gaurko zatiketa administratiboaren gainetik ere. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB